# 2017. URTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

**ESPARRUA: KIROLA**

IN-E 180/02-17

| | |
|---|---|
| **UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:** | **Kirol Patronatua** |
| **INSTRUKTOREA:** | Itxaro Zabala (Kirol Patronatuko zuzendaria) |
| **BALORAZIO BATZORDEA** | Irune Ormaetxea (Amaia Elorza ordezkoa),<br>Aritz Abaroa (Pedro Bilbao ordezkoa)<br>Xabi Ortuzar (Sergio Ugalde ordezkoa)<br>Itxaro Zabala |
| **DIRU-LAGUNTZA ARLOA:** | Bermeon antolatzen diren kirol jarduera bereziak finantzatzeko diru-laguntza programa |
| **KODEA:** | **2017/04-02** |
| **AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:** | **21.000 €** |
| **HELBURUA**: | • Herri osoarentzat, jarduera arruntetik haratago antolatzen diren jolas izaerako kirol jarduera berezien eta/edo noizean behingo jardueren antolaketa sustatzea, laguntza ezberdina edota gehigarria eskatzen dutenak.<br>• Herritarren aukerak kirola praktikatzeko areagotu.<br>• Ohiko kirola sustatu herritarren osasuna areagotzeko eta gizarte-harremanak eta bizi-kalitatea hobetzeko. |
| **BALORAZINO ERIZPIDEAK:** | 1.- Kirol ekintzaren aurkezpena (dokumentazinoa).<br>2.- Kirol ekintzaren iraupena.<br>3.- Ikusleen erantzuna.<br>4.- Partaidetza aldetik: - parte hartzaile kopurua eta – nori zuzenduta dagoan.<br>5.- Kirol ekintzaren izakerea.<br>6.- Aurrekontua: finantziazino mailea eta argitasuna. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa kontuan hartuko da.<br>7.- Diziplina horri buruz aurkeztutako proiektuen kopurua. |

| | |
|---|---|
| **ESKARIAK ETA AURKEZTEKO EPEA:** | Eskariak aurkezteko epea urriaren 31ra artekoa izango da, honeek oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diranetik hasita.<br>Horrezaz ganera, honeek izango dira aurkeztu beharreko dokumentuak:<br><br>a) IFKren fotokopia edota NANaren fotokopia persona fisikoa balitz<br>b) Ekintzearen aurrekontu zehatza, agertu beharko dau ekintza gauzatzeko zein neurri ekonomiko daukan (kuotak, bestelako dirulaguntzak, eskari zehatza, etab.) (1go ERANSKINA) |
| **DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA:** | Dirulaguntza berezien onuradunak ekintzako dirulaguntzearen justifikazinoa egin beharko dau, honeek dokumentuak ekarrita, **ekintza egin eta hiru hilebeteko** epean.<br><br>1. Ekintzearen memoria: egindako ekintzearen garapena, balorazinoa, lortutako helburuak eta ebaluazinoa, balantze ekonomikoa, gastuak eta diru sarrerak barne, bestelako dirulaguntzak. (II. ERANSKINA)<br><br>***Dirulaguntzea ezingo da erabili kirolariei ordaintzeko, primetarako, oparietarako, protokoloko ekintzetarako eta bazkarietarako.** |
| **ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:** | 02-1.docx     02-2.docx |